

## III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

## EUSKO JAURLARITZA

## LAN ETA JUSTIZIA SAILA

## Arabako Lurralde Ordezkaritza

**Saunier Duval Clima, SA enpresarentzako hitzarmen kolektiboa**

Ebazpena, Lan eta Justizietako Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da 2019-2020-2021-2022 Saunier Duval Clima, SA enpresarentzako hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea. Hitzarmenaren kodea: 01100251012015.

## Aurrekariak

2018ko abenduaren 19an aurkeztu da, Ordezkaritza honetan, negoziazio batzordeko enpresari ordezkariak eta ordezkari sozialek, 2018ko abenduaren 17an sinatu zuten lan hitzarmen kolektiboaren testua.

## Zuzenbideko oinarriak

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritzari honi dagokio, apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuko 15.1.h artikulua –Lan eta Justiziako Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2017ko apirilaren 21eko EHAA)- dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboaren erregistroari buruzkoak- lotuta.

Bigarrena. Sinatutako hitzarmen kolektiboak betetzen ditu lehen aipatutako Langileen Estatutu Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak.

Honen ondorioz,

## Ebatzi dut

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboaren Erregistroko Arabako Lurralde Bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 21a

*Arabako Lurralde ordezkariaren idazkari nagusia, ordezkariaren ordezkari, hala ezartzen du 2017/84 Dekretuaren 15.2 artikulua (2017ko apirilaren 21eko, 76. zk, EHAA)*

**CRISTINA VEGAS EGAÑA**

**Saunier Duval Clima, SA sozietateko enpresa-hitzarmena  
Gasteizko lantokia**

## I. kapitulua. Baldintza orokorrak

**1. artikulua. Hitzarmena itundu duten aldeak zehaztea**

Hitzarmen Kolektibo hau Langileen Estatutuaren III. tituluak arautzen duena betez hitzartu da, eta langileen ordezkariak eta enpresako zuzendaritzak adostu dute.

**2. artikulua. Eredu pertsonala**

Saunier Duval Clima SA enpresako langile guztiei aplikatuko zaie hitzarmen hau, baldin eta haien lanpostua Gasteizko Jundiz industrialdean dagoen Mendigorritxu kaleko 52. zenbakian dagoen lantokian betetzen baldin badute.

Ez dira hitzarmen honen baitan sartuko Saunier Duval Clima SA enpresako beste lantoki batzuetan kontratatatuak izan diren langileak.

Ez dira hitzarmenaren eremu ekonomikoan sartuko enpresan argitaratzen den hitzarmeneko soldata-taulan sartzen ez diren lanbide-kategorietako langileak. Hemendik aurrera, "hitzarmeneko langileak" esapidea erabiliko dugu hitzarmenaren eremu ekonomikoan sartzen diren langileak izendatzeko.

**3. artikulua. Denbora-eremua**

Hitzarmenak, hasiera batean, 4 urteko iraupena izango du, hau da, 2019ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra arte izango da indarrean, bi egun horiek barne, eta haren salaketa automatikoa izango da 2022ko abenduaren 1ean.

Hitzarmen honek hasiera batean ezarria duen iraupen-denbora amaitzean, haren edukiak indarrean jarraituko du gerora, hura berritzeko negoziazioak lantzen diren bitartean. Urtebeteko epea izango dute, gehienez, negoziazio horiek, hasiera iraupen-denbora amaitzen denetik kontatzen hasita (hau da, 2023ko abenduaren 31 urtera arte luza daitezke negoziazio horiek).

Enpresak ezingo du, hitzarmen honen hasierako indarraldian, aldebakarrez aldatu edo bete gabe utzi hitzarmeneko lan-baldintzak, salbu eta hori egitea adosten baldin badu langileen lege-ordezkariekin, edo, adostasunik iristen ez baldin badu, aldean arteko desadostasuna 35. artikuluko azken paragrafoan arautzen den prozedura betez ebazten baldin badu.

**4. artikulua. Funtzio-eremua**

Hitzarmen honek Enpresaren lan-harremanak arautzen ditu; hortaz, indarrean dagoen legegandian xedaturikoaren aurretik aplikatuko da.

Hitzarmen honetan xedatzen ez diren gaiak arautzeko, unean-unean Arabako sektore siderometalurgikoarentzat indarrean den hitzarmen kolektiboan arautzen dena aplikatuko da.

**5. artikulua. Itun osagarriak**

Alde batera utzi gabe 1. artikulua arautzen duena, hitzarmeneko bi alderdiak, hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, ados jartzen baldin badira forma-zuzenketak egiteko, hitzarmenean aurrekusi ez diren hobekuntzak ituntzeko edo adostu arren, zehaztu edo garatu gabe gelditu diren gaiak hitzartzeko, berariaz hitzartzen da gai horiek hitzarmen honen eranskin gisa jasoko direla hitzarmenean.

Zuzendaritzak eta langileen lege-ordezkariek hitzartu behar dituzte gerora egin daitezkeen itunetan proposatzen diren aldaketak.

**6. artikulua. Berme pertsonala**

Hitzarmen Kolektibo hau indarrean hastean plantillako langile guztiek dituzten ekonomia-baldintzarik onuragarrienak errespetatuko zaizkio langile bakoitzari, osotasunean eta urteko zenbatekoan.

Aurreko xedapena betetzeko izango bada ere, beste edozein baldintza eta hobekuntzak konpentsatu eta xurgatu egin ditzake baldintza onuragarrien horiek, baldin eta betetzekoak baldin badira —haien jatorria eta/edo izaera edonolakoa delarik ere— hitzarmen kolektibo honetan edo bestelako titulu juridikoren batean oinarrituta.

Era berean, hitzarmen kolektibo honek arautzen dituen lan-baldintzak konpentsatu eta xurgatu egingo dira lantokiak ezinbestean betetzekoak dituen bestelako baldintzekin —haien jatorria eta/edo izaera edonolakoa delarik ere—, arau eta/edo hitzarmenen batek horrela agintzen duelako.

## **7. artikulua. Soldata**

Soldata-taulak eransten dira.

Hauak dira soldata eta/edo ordainsari ekonomikoen alorrean aplikatzekoak izango diren izaera orotako kontzeptu guztiak:

- Soldata finkoa.
- Antzinasun-plusa.
- Absentismorik ezaren ordainsaria.

Tauletan adierazten den urteko soldata finko gordina 14 ordainsaritan ordainduko da, 12 arruntak izango dira eta 2 apartekoak.

Ekainean eta abenduan ordainduko dira aparteko ordainsariak, eta egutegiko sei hileko epetan sortuko dira, lan egindako denborarekiko proportzioan. Aparteko ordainsarietan, hileko ordainketa arrunt bati dagokion soldata-zenbatekoa eta antzinasun-plusari dagokion zenbatekoa jasoko dira.

Nominaren egitura 2019-2022 hitzarmen kolektiboan aurreikusitakora egokituko da. Hitzarmen kolektibo honek Saunier Duval Climaren Gasteizko lan-zentroaren 2015etik 2017ra bitarteko urteetarako hitzarmen kolektiboa ordeztuko du ondorio guztietarako.

### **7.1. Soldata-igoera**

Orain arautuko da hitzarmen honen baldintza ekonomikoetara lotutako langileen (hitzarmeneko langileen) soldata-berrikuspena.

Soldata-igoera hau aplikatuko dira soldata-tauletan 2019, 2020, 2021 eta 2022 urteetarako jasotzen den soldata finkoaren gainean:

EAEko aurreko urteko KPIa + ehuneko 0,50.

EAEko KPI adierazlea negatiboa baldin bada, ehuneko 0,50eko igoera bermatuko da.

### **7.2. Taulen soldata finkoa**

Tauletan eransten den soldata finkoaren kontzeptua. Langileek gauzak kobratzea aukeratu ahalko dute bere aukerako tauletan aurreikusitako soldata finkoaren ehuneko 20ra arte, gehieenez, ordainketa malgu gisa, momentu bakoitzean enpresan indarrean dagoen sistemari jarraikiz.

### **7.3. Absentismorik ezaren ordainsaria**

Horrez gainera, langilearen baldintza ekonomikoak hitzarmen honetara lotuta badaude (hau da, hitzarmeneko langileak badira), finkatzerik izango ez den ordainsari bat izango da, ehuneko 1,25ekoa aurreko urteko soldata-taulan adierazitako soldata finkoarekiko. Ehuneko honi langile bakoitzak izandako absentismoari lotuko zaio, hitzarmen hau indarrean izango den urte bakoitzeko. Ordainsari hori ez da finkagarria izango, eta erantsita adierazten diren xehetasunak izango ditu.

BAJAREN IRAUPENA		
Lehendabiziko baja *	6 egun bitartean (48 ordu)	ehuneko 1,25
3 egun artean**	24 ordu	ehuneko 0,95
5 egun artean	40 ordu	ehuneko 0,65
7 egun artean	56 ordu	ehuneko 0,35
7 egun baino gehiago	> 56 ordu	0

• Lehendabiziko bajak koltxoi-lana egiten du, eta, hura egun bakarrekoa izan arren, 2. tartera igaroko da langilea.

• \*\*Pilatu egiten dira, harik eta hirurak osatu arte.

Langileen ernaldi edo haurdunaldiaren zeharreko bajak eta luzaroko bajak (30 egun jarraituak gainditzen dituztenak) ez dira falta gisa zenbatuko absentismorik ezagatiko ordainketaren kalkuluan.

Absentismoaren ordainsaria dagokion urtea igarota ordainduko da, martxoko nominan. Epeak bete ezinean baldin badabil enpresa, horren arrazoiak berri emango zaio enpresa-batzordeari.

#### 7.4. Antzinasun-plusa.

Estatuan indarrean den lanbide arteko gutxieneko soldataren (LGS) ehuneko 5ekoa izango da antzinasun-plusaren zenbatekoa, betetako bosturteko bakoitzeko.

#### 7.5. Taulen muga

Beren soldata teorikoak, antzinakotasuna kenduta, urteko 35.000 euro gordineko zenbatekoa gainditzen duten hitzarmeneko langileak. Adierazitako zenbatekora iristeko, kontuan izan behar dira taulen soldata finkoaren batura (7.2 atala), absentismorik ezagatiko gehieneko ordainketa (7.3 atala) eta ordainketa jasotzeko eskubide pertsonala duten langileen kategoriaren desberdintasunaren arabera borondatezko ordainketa. Horiek, automatikoki, hitzarmenean jasotzen den ekonomia- eta soldata-esparrutik kanpo geldituko dira, beren lan-kategoria gorabehera. Kasu horretan, martxan den urteko absentismorik ezagatiko ordainketa urteko soldata finko gordinaren parte izatera pasatuko da.

#### 7.6. Soldata-igoera ezartzea

Urteko soldataren berrikuspenaren arabera igoera martxoko nominan aplikatuko da, ondoreak martxan den urteko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituen arren. Bestalde, martxoko hilerokoarekin batera ordainduko dira urte hasieratik eman diren atzeratzeak.

### 8. artikulua. Gatazkak konpontzeko prozedura

Gatazkak konpontzeko bide naturala elkarrizketa izango dela erabaki dute alderdi sinatzaileek, eta hitzarmen kolektibo honen interpretazioari eta aplikazioari buruz sortzen diren zalantza, eztabaida, eta galdera guztiak aztertzeko konpromisoa hartu dute, erabil lezaketen beste edozein administrazio-bide edo jurisdikzio-bide hartu aurretik.

Era berean, batzorde paritarioan konpondu gabeko desadostasunei dagokienez, PRECO/GKP prozeduran aurreikusitako adiskidetzeko-prozesuetara edo adiskidetzeko beste edozein motatako instantzietara jo dezakete alderdiek. Aldeek ez dute bitartekaritza edo arbitrajeko biderik urratuko, baldin eta ez badute halakorik baliatzea adosten.

### 9. artikulua. Arau-osagarriak

Hitzarmen honek arautzen ez dituen gai-alorrak arautzeko, Langileen Estatutura eta unean-unean izaera orokorrez betetzekoak diren gainerako lege-xedapenetara joko da haiek arautzeko, baldin eta ez badira hitzarmen honek xedatutakoarekin kontraesanean. Arau osagarria izango da, era berean, Araban siderometalurgia-industriaren sektorean indarrean den hitzarmena.

## II. kapitulua. Enplegua eta kontratazioa

**10. artikulua. Kontratazioa**

Unean-unean indarrean diren lan-kontratazioko modalitateak baliatuko ditu enpresak langileak hartzeko, eta kontratazio mugagabeak eta iraunkorrak izango dira enpresaren kontratazio-politikaren erreferentziak.

Gasteizko Saunier Duval Climako plaza hutsen eta lanpostu finkoak aukeratzeko irekitako prozesuen berri eman beharko zaio Batzordeari. Era berean, unean-unean indarrean dagoen legeen arabera, aipaturiko prozesu irekiak jakinaraziko zaizkie Gasteizko lan-zentroko langileei; horrela, egokitzen jotzen badute, beren hautagaitza aurkeztu dezaten. Hautagaitza hori kontuan hartuko da jaso diren gainerako kanpoko hautagaitzekin batera, aipaturiko prozesuei estaldura emateko.

Baldintza berdinetan, barne-sustapenari emango zaio lehentasuna, kanpo-kontratazioaren aldean.

Sekzioetako zuzendaritza-postuak bete behar badira, prozesu horiek publiko egitea ala ez egitea erabaki dezake enpresak, eta ez du barne-sustapenik abiarazteko betebeharririk izango. Hori horrela, berrien altaren aurretiatzko jakinarazpena egingo zaio enpresa-batzordeari.

**11. artikulua. Kontratu-amaierako aurreabisua**

Borondatez enpresa utzi nahi duten langileek asmo horren berri eman beharko diote enpresari, gutxienez, 30 egun naturaleko aurreabisu-epea errespetatuz.

Aldez aurretik jakinarazteko betebeharrak hori ez betetzeak eskubidea emango dio enpresari aurreabisuko falta-egun bakoitzeko langilearen eguneroko soldataren zenbatekoaren baliokidea den kopurua kentzeko enplegatuen kitapenetik.

Lana uzteko asmoa azaltzen baldin badu langileren batek, enpresak haren esku utziko ditu, bi aletan, kitatze-agiriak, eta, bi aldeek haiek sinatu ondoren, enpresaren esku geratuko da horietako bat eta langilearen esku bestea. Enpresak ez baditu inprimaki horiek langilearen esku uzten, ezin izango du likidazioan aurreabisurik ezagatik deskontua egiteko eskubidea baliatu.

Era berean, diziplinazko kaleratzeak egiten direnean izan ezik, enpresak 30 egun lehenago jakinaraziko dio enplegatuari bere kontratu-amaiera. Aurreabisua egiteko betebeharra urratzen baldin badu, aurreabisuko falta atzerapen-egun bakoitzeko eguneroko soldataren zenbatekoaren baliokidea den kopurua ordaindu beharko dio enpresak langileari azken horri dagokion kitapenean.

**12. artikulua. Borondatezko eszedentzia**

Langileak, edozein arrazoi dela medio, borondatezko eszedentzia har dezake, 4 hiletik gorakoa eta 5 urtetik beherakoa beti, baldin eta urtebeteko antzintasuna baldin badu gutxienez enpresan eta 4 urte igaro baldin badira aurreko borondatezko eszedentzia amaitu zitzaionetik.

Eszedentziaren lehenengo urtean, langileak eskubidea izango du bere lanpostua edo, kategoria berean, antzekoa den lanpostu bat gorde dakien.

Ezin da borondatezko eszedentziarik eskatu Saunier Duval Clima enpresaren lehiatzaile den enpresa batean eta antzeko lanpostu batean lan egiteko, eta 30 egun naturaleko aurreabisuarekin jakinarazi beharko da.

**13. artikulua. Enplegu-erregulazioko espedientea**

Enpresak unean-unean betetzekoa den araubideak araututako epeetan eta baldintzetan jakinaraziko dio enpresa-batzordeari enplegu-erregulazioko espedienteen aldebakarreko abiaraztea, bai kontratuak etetekoak, bai kontratuak suntsitzekoak (gaur egun, Langileen Estatutuak eta urriaren 29ko 1483/2012 Errege Dekretuak osatzen dute araubide hori).

**14. artikulua. Kanpo-zerbitzuak****14.1. Aldi baterako laneko enpresak.**

Enplegu egonkorra sustatzeko, enpresak bere gain hartzen du konpromiso hau: ez du aldi baterako laneko enpresen bidez kontratatuko Vitoria-Gasteizen duen lantokiko plantillaren urteko batez bestekoaren ehuneko 12,5 baino langile gehiago.

Ezingo da sei hiletik gorako kontraturik egin ABLEen bidez Saunier Duval Clima enpresan.

Horrez gainera, ezingo da lanposturik bete urtebete jarraitu bat baino gehiagoz ABLEen bidez kontratatutako langileekin. Urtebete hori igaro ondoren, enpresak lanpostu hori izaten jarraitzen baldin badu, enpresak kontratatutako langileek beteko dute lanpostu hori. Mugapen hori ez da betetzekoa izango biltegian egiten diren lanetarako.

**14.2. Bekak**

Enpresak, bere esku dituen zuzendaritza eta antolaketa-erako eskumenen baitan, lankidetzahitzarmenak kudea ditzake unibertsitate eta prestakuntza-ikastegiekin, praktikak egiteko aukera emateko ikasten ari diren edo ikasketak amaitu berri dituzten gazteei. Horretarako, enpresak akordioak formalizatuko ditu, eta ziurtatu egingo da bete egiten dela gizarte-segurantzaren alorrean indarrean den araubidea.

**14.3. Zerbitzuak emateko kontratuak.**

Enpresak, bere zuzendaritza eta antolamenduko eskumenen baitan, hirugarren enpresak azpikontratu ditzake obra eta/edo zerbitzuz jakinak egin eta emateko kanpo-langileekin, bai enpresaren instalazioetan, bai haietatik kanpo.

**15. artikulua. Praktikaldiko kontratuak**

Langileak Langileen Estatutuko 11. artikulua eta hura garatzen duten xedapenek arautuek araututako praktikaldiko kontratuen bidez kontratatzen baldin badira, haren lanbide-kategoriari dagokionaren ehuneko 60koak izango dira lehen urtean eta ehuneko 75ekoak bigarren urtean.

Hala ere, enpresaren konpromiso moduan, soldata hori ez da izango peoiaren soldataren ehuneko 100 baino txikiagoa.

**III. kapitulua. Laneko denbora****16. artikulua. Urteko lanaldia**

Urteko lanaldi orokorra 1.690 ordukoa izango da 2019, 2020, 2021 eta 2022 urteetan. Urteko lanaldiak ez du inoiz ere izango Araban eta dagokion urtean siderometalurgiaren sektorerako indarrean den hitzarmenak adierazten duena baino ordu-kopuru handiagoa.

Ogitartekoa jateko denbora, eguneko 15 minututan ezarria, lan egindako eguntzat hartuko da. Langileen artean adostutako beste edozein atsedenaldira, ogitartekoarenaz gain, (erretzeko, esaterako) lanalditik kanpokotzat hartuko da, hau da, ez da benetan lan egindako denboratzat hartuko eta falta hori fitxatu egin beharko da horretarako bideratutako erlojuari.

**17. artikulua. Txandak eta ordutegi-erregimen berriak**

Enpresan txandakako erregimena edo bestelako ordutegi-erregimenen bat ezartzeko, negoziaketak eta kontsultak beteko dira langileen ordezkarien eta enpresaren arteko.

**18. artikulua. Egutegia eta ordutegia**

Egutegia zehazteko, negoziaketak eta kontsultak beteko dira enpresaren eta langileen ordezkarien artean.

Enpresa-jarduerak beharrezko duen zerbitzu-mailara egokituko dira ordutegiak. Urtero eranskin batean jasoko dira egutegiaren xehetasunak, eta haietan zehaztuko dira Saunier Duval Clima enpresak Gasteizen duen lantegiko lan-egutegi guztiak.

Zubi-eguna izango da aurretik edo atzetik jaieguna duen eguna, eta horrela adieraziko da urteko egutegian. Langileren batek zubi-egun batean lan egiten badu enpresak eskatzen duen zerbitzu-mailari erantzuteko, 2 egun libre emango zaizkio lan egindako egun bakoitzeko.

Guardiako eguna izango da urteko egutegian izaera horrekin adierazita dagoena (ez du aurretik edo atzetik jai-egunik izango), baldin eta Gasteizko langileentzat jaieguna izanda, area edo sailen batek lan egin behar baldin badu enpresak eskatzen duen zerbitzu-mailari erantzuteko. Guardiaki konpentsatzeko, egun libre bat emango da lan egindako egun bakoitzeko.

Olarizu egunean lanaldia 6 ordukoa izango da.

Jaiegunen aurreko egunetako (asteko azkenengo laneguna, ostirala jaieguna edo zubia izanik) lanaldia 7 ordukoa izango da. Lanaldi zatituan banatuak Biltegiaren eta Ordezko Piezen Bulegoaren egutegian eta lanaldi intentsiboan banatuak bulegoen egutegian (Zerbitzu Orokorrak, I+G, Finantzak eta Trading Bulegoak).

Bulegoen egutegian (Zerbitzu Orokorrak, I+G, Finantzak eta Trading Bulegoak) jardunaldi intentsiboa izango da, 7 ordu era jarraituan, uztailaren 1etik irailaren 7ra arte.

Ordu-tegi malgua hautatzeko aukera izango dute bulegoetako egutegira atxikitako langileek (zerbitzu orokorretakoak, I+G atalekoak, finantzetakoak eta Trading bulegoetakoak); hala, 07:30etik aurrera sar daitezke, gutxienez 30 minutuko etena egin behar dute, eta 16:30 etan izango dute irteteko lehen ordua.

Lan-kargen antolamendu banakatuak erraztu eta soberan edo faltan dauden orduak konpentsatzeko, malgutasunak hiruhileko aldizkakotasuna izango du, hau da, hiruhilero egingo da orduen konpentsazioa. Langilearen egitekoa izango da emaitza zerokoa izatea, lauhileko orduen zenbaketa egin ostean. Soberako orduak baldin badago lauhilekoaren amaieran, ez da ordu horiek konpentsatzeko modurik izango. Emaitza negatiboa baldin bada, hurrengo hileko nominatik kenduko dira faltan diren ordu horiek.

Horrekin batera, ordu-poltsak sortuko dira guardietan eta zubi-egunetan egindako orduekin. Urteko zenbaketa izango dute ordu horiek, eta haiek aurretiaz hartzeko aukera izango da, atsedeen-denborak ahalik eta hobekien bateratzeko lan-denborarekin. Langilearen egitekoa izango da emaitza zerokoa izatea, urte amaierako zenbaketa egin ostean. Soberako orduak baldin badago urtearen amaieran, ez da ordu horiek konpentsatzeko modurik izango. Orduen zenbaketa eginda, emaitza negatiboa baldin bada, hurrengo hileko nominatik deskontatuko dira ordu horiek, salbu-eta urteko azken hilean egindako guardietako edo zubietako lan-ordun kasuan izan ezik. Azken kasu horretan, bestelako irtenbideak planteatuko dira, aldeztu aurretik langileen ordezkariari kontsulta eginda.

### 19. artikulua. Oporrak

Saunier Duval Klima enpresak Vitoria-Gasteizen duen lantegiko langile guztiek, hitzarmenekoek zein hitzarmenetik kanpokoek, 26 laneguneko oporrak izango dituzte urtean (horien artean, sartuta daude Arabako siderometalurgiaren industriarako hitzarmenak arautzen dituen xedapen askeko egunak). Hurrengo urteko maiatzaren 31ra arte har daitezke oporrak, beranduenez. Galdu egingo dira egun horretara bitartean hartzen ez diren opor-egunak.

Amatasuneko, aitasuneko edo aldi baterako ezintasuneko bajaren bat hartuta dagoen langileak ez baldin baditu opor-egun horiek hartu maiatzaren 31 baino lehen, ez dira egun horiek galduko; aitzitik, hurrengo epe/urtera igaroko dira osorik, eta baja-denbora igaro eta lanera itzuli bezain laster hartu beharko dira opor-egun horiek.

Oporraldia egutegietan ezarriko da. Bulegoetarako (Zerbitzu Orokorrak, I+G, Finantzak eta Trading Bulegoak), gutxienez, 16 eguneko oporraldia ezarri beharko da nahitaez uztailaren 1etik irailaren 7ra bitartean, betiere, jardueraren garapen normalari kalterik eragiten ez badi; hori gerta daiteke, esaterako, ordezko piezen bulegoetan eta biltegien, bertan, lanaldi intentsiboa eta oporraldia urteko egutegian hitzartutakoaren arabera gauzatuko baita.

Enpresak ezingo du urtean behin baino gehiagotan ukatu langile berberaren opor-eskaera, eta ukatzen den momentuan ezarrita gelditu beharko da zein izango den oporraldi-egun horiek hartzeko aldia. Enpresak 15 egun natural izango ditu gehienez langileen opor-eskaerak onartu edo ukatzeko. Aipaturiko epea igaro ostean enpresak ez badu erantzunik ematen, aipaturiko oporrak onartu egingo dira automatikoki.

#### **20. artikulua. Aparteko orduak**

Hitzarmen kolektibo hau sinatu duten alderdiek onartu dute gaur egungo enplegu-mailak arazo larria direla gizartearentzat. Horrenbestez, bat datoz enpresan aparteko ordu guztiak kentzeko premiarekin. Hortaz, ohiko lanaldia honako kasu hauetan luzatu ahal izango da soilik, betiere legeak ezarritako mugen barnean:

– Ezinbesteko kasuetan, ezbeharrei, edo bestelako aparteko premiazko kalteei aurrea hartzeko, edo horiek konpontzeko.

– Enpresak ezin aurreikusi izan dituen arrazoiak direla-eta, enpresaren funtzionamendu normalerako ezinbestekoa bada lanaldia luzatzea. Kasu horietan, aparteko orduak egitea borondatezkoa izango da langilearentzat.

Aparteko orduak derrigorrean konpentsatuko dira atsedeen-denborarekin, eta aparteko ordu batek atsedeneko 2 orduren proportzioa izango du. Aparteko orduak egin ondorengo hiru hiletan hartu behar da atsedeen-denbora, eta alderdiek izenpetutako agiri batean formalizatuko da hura.

#### **21. artikulua. Xedapen askeko egunak hartzea**

Arabako siderometalurgiaren industriako hitzarmenak arautzen dituen xedapen askeko egunak sartuta daude Saunier Duval Clima enpresak Vitoria-Gasteizen duen lantegiko langileek har ditzaketen opor-egunen barruan; beraz, aurrerantzean ezingo da egin Arabako siderometalurgia industriarako hitzarmenak edo unean-unean betetzeko den arauak jaso ditzakeen xedapen askeko egunen gaineko eskaerarik.

#### **22. artikulua. Langileak bere ibilgailua erabiltzea**

Langileak enpresaren beharengatik eta enpresak eskatuta bere ibilgailuarekin bidaiaria bat egin behar badu, 0,35 euro ordainduko zaio kilometro bakoitzeko.

Saunier Duval Clima enpresak Vitoria-Gasteizen duen enpresak enpresa-ibilgailu bat jartzen du langileen eskura, baldin eta haien lanpostua betetzeko haren premian baldin badaude. Aldez aurretik erreserbatu behar da ibilgailu horren erabilera, haren erabilera behar bezala kudeatzeko.

#### **23. artikulua. Laneko arropa**

Enpresak beharrezkoa den laneko arropa emango die Saunier Duval Climak Gasteizko lan-zentroko langileei egiten duten lanen ezaugarri espezifikoek horrela eskatzen dutenean.

Lanpostuan arropa hori erabiltzen jarraitzeko baldintzak ez direla betetzen uste bada edo langileak enpresan edozein arrazoiengatik (eszedentzia-egoera zein lan-kontratuaren etenaldia dakarren beste edozein kasu barne) baja hartzen badu, eta enpresaren izena eta/edo irudia lan-ingurutik kanpo kontrolik gabe gelditu ez dadin, enpresaren logoa eta/edo izena daramaten jantzi guztiak horiek gordetzera bideratutako tokietan utzi beharko dira.

### **IV. kapitulua. Lan-baldintzen aldaketak**

#### **24. artikulua. Mugikortasun funtzionala**

Enpresa barruko mugigarritasun funtzionala Langileen Estatutuko 39. artikuluan xedatuaren arabera arautuko da.

Enpresa-zuzendaritzak nahikoa aurrerapenez jakinaraziko die langileei konpainian egiten diren lanpostu-aldaketa guztiak —funtsezko eginkizunak aldatzea badakarte—, aldez aurretik horren berri emanda enpresa-batzordeari.



## V. kapitulua. Lanbide-sailkapena

**25. artikulua. Lanbide-talde eta -kategoriai**

Lanbide-taldeen bidez egiten da lanbide-sailkapena, jarraian adieraziko den moduan. Sailkapena lanbide-taldeen arabera egingo den arren, lanbide-kategoriai erabiltzen jarraituko da lanbide-talde bakoitzean aplikatuko diren soldata-mailak zehazteko.

- Lanbide-taldeak

## 1. lanbide-taldea

## Irizpide orokorrak

Talde honetako langileek erantzukizun zuzena dute enpresako funtzio-eremu baten edo batzuen kudeaketan, edota konplexutasun- eta kualifikazio-maila handieneko zeregin teknikoak egiten dituzte. Erabakiak hartzen dituzte edo haietan parte hartzen dute. Helburu konkretuak zehazten laguntzen dute. Burujabetasun, ekimen eta erantzukizun handiz betetzen dituzte haien zereginak.

## Prestakuntza

Goi-mailako unibertsitate-titulua edo enpresak aitortutako jakintza baliokideak, bai eta ikasketa espezifikoa edota bere lanbidean eskarmentu handia.

Erreferentzia moduan, honako kategoria hauek sartzen dira talde horretan:

## Enpleguak:

- Arlo eta zerbitzuetako zuzendariak.
- Lizentziatuak.
- Goi-mailako unibertsitate-gradua eta masterra.

## b) Teknikariak:

- Goi-mailako unibertsitate-gradua eta arkitekturako masterra.
- Goi-mailako unibertsitate-gradua eta ingeniarietako masterra.
- Ingeniariak eta arkitektoak, goi-mailakoak.

## Eginkizunak

Adibideak: analogiak eginda, honako hauekin parekatzeko modukoak diren jarduera guztiak sartzen dira lanbide-talde honetan:

– Arlo, zerbitzu edo sailen baten barruko lan heterogeneoak edo guztiak koordinatzea, gainbegiratzea, antolatzea edota gidatzea.

– Konplexutasun eta heterogenotasun handiko zuzendaritza teknikoko lanak, dena delako alor horretan autonomia maila eta ekin-nahi handia behar dutenak, honako lanetan: ikerketa, kalitatearen kontrola, prozesuen zehaztapena, lan-arloko aholkularitza juridikoa, zerga-aholkularitza eta abar.

– Konplexutasun eta balio-aniztasun oso handiko eta gehieneko autonomia- eta ekimen-maila eskatzen duten zeregin teknikoak gauzatzea bere esparruaren barruan; enpresaren funtsezko erabakien inguruko aholkularitza barne hartu dezakete.

– Enpresa ertain batean edo enpresa txiki batzuetan, arlo, zerbitzu edo sail jakin bat planifikatu, antolatu eta gainbegiratzeko lanak, horren emaitzaren ardura hartuta.

## 2. Lanbide-taldea

### Irizpide orokorrak

Zeregin tekniko konplexuak gauzatzen dituzte, burujabetasun-, ekimen- eta erantzukizun-maila altuarekin eta helburu global zehaztuekin, edo zeregin horiek eduki intelektual handia dute, edo giza harremanei lotutakoa. Talde honetan daude, orobat, funtzio-eremu bateko lankideek egindako zereginak integratu, koordinatu eta ikuskatzearen zuzeneko ardura dutenak.

### Prestakuntza

Erdi-mailako unibertsitate-titulua edo enpresak parekidetutako jakintza baliokidea dute, baita esperientzia zabala ere beren lanbide-sektoreko eginkizunetan. Talde honetan sar daitezke, sarrerako goi-mailako tituludunak edo goi-mailako unibertsitate-titulua eta sarrerako masterra.

Erreferentzia moduan, honako kategoria hauek sartzen dira talde horretan:

#### a) Enplegatuak:

- Sarrerako goi-mailako tituludunak.
- Unibertsitate-diplomadunak.
- Goi-mailako unibertsitate-gradua.

#### b) Teknikariak:

- Arkitekto teknikoak (aparejadoreak).
- Ingeniari teknikoak (perituak).
- Arkitekturako goi-mailako unibertsitate-gradua.
- Ingeniaritzako goi-mailako unibertsitate-gradua.

### Eginkizunak

Adibideak: Eginkizunen kidetasuna dela eta, honako hauen parekagarri diren jarduera guztiak barne hartzen dira lanbide-talde honetan:

– Zeregin heterogeneoak (mantentze-lanak, administraziokoak, zerbitzuak) egiteko modua antolatu, koordinatu eta gainbegiratzeko eginkizunak.

– Laguntza-eginkizun oso teknikoak, autonomia ertainez eta jokabidea guztiz mugatzen ez duten jarraibideak eta arauak betez gauzatzen direnak, ikerketako, kalitateko eta prozesuen zaintza eta kontrolako eginkizunetan.

– Diplomadunek egiteko jarduerak, administrazio eta/edo zerbitzu orokorretako gaietan antolamendu, kontrol, aholkularitza eta aginteko eginkizunak betez.

– Proiektuak alde guztietatik lantzeko egin beharreko lanak, honako irizpide hauek aplikatuta: normalizazioa, kalkulu generikoak eta xeheak, materialen erresistentzia eta abar, proiektua erabat bideragarria izan arte.

## 3. Lanbide-taldea

### Irizpide orokorrak

Aginte-erantzukizunarekin edo gabe, adimen-jarduerari eta giza harremanei dagokienez erdi-mailako edukia duten zeregin homogeenok egiten dituzte, erdi-mailako konplexutasuna duten jarraibide zehatzen esparruan, baina prozesuaren barruan autonomia dutela. Laguntzaile-talde batek egindako zeregin homogeenok integratu, koordinatu eta ikuskatzeko eginkizunak bete ditzakete, antolamendu-maila txikiago batean.

#### Prestakuntza

Maila ertaineko edo goi-mailako heziketa-zikloko titulua, edo enpresak aitortutako jakintza baliokideak, eta/edo lanpostu horren gaineko prestakuntza, edo lanbidea gauzatzean eskuratutako jakintza.

Kategoria hauek hartzen ditu:

a) Enplegatuak:

- Administrariak.

b) Teknikariak:

- Delineatzaileak.

- Hotz-teknikariak.

- Teknikariak.

#### Eginkizunak

Adibideak: analogia eginda, honako hauekin parekatzeko modukoak diren jarduerak sartzen dira lanbide-talde honetan:

– Proiektuak garatzen laguntzeko zeregin teknikoak, normalizazioa aplikatuz, kalkulu xeheak eginez, eta goragoko agintariren batek emandako datuetan oinarrituta planoak prestatuz.

– Antolaketako zeregin administratibo teknikoak edo exekuzio praktikoko laborategikoak, goragoko agintariren batek emandako arauak kontuan hartuta egin behar direnak.

– Zeregin teknikoak, administratiboak edo antolamendukoak, jakintza handia eskatzen dutenak.

– Proiektu-, erreproduktzio- edo xehetasun-mota guztietako zeregin teknikoak betetzea maila altuagoko arduradun baten zuzendaritzapean, eta proiektuak egiteko modua agindu, zaindu eta zuzentzea.

#### 4. Lanbide-taldea

##### Irizpide orokorrak

Beren kabuz egin beharreko lanak egiten dituzten langileak; lan horiek ekimena eta arrazoi-mena eskatu ohi dute langileengandik eta, ikuskaritzapean, zeregin horien erantzukizuna dute.

#### Prestakuntza

Batxilergoko edo erdi-mailako heziketa-zikloko titulua, edo enpresak aitortutako jakintza baliokideak, eta/edo lanpostu horren gaineko prestakuntza, edo lanbidea gauzatzean eskuratutako jakintza.

Erreferentzia moduan, honako kategorია hauek sartzen dira barnean:

a) Enplegatuak:

- 1. mailako administraria.

b) Teknikariak:

- 1. mailako delineatzailea.

- 1. mailako hotz-teknikaria.

- 1. mailako teknikaria.

c) Beharginak:

- Talde-koordinatzailea.

### Eginkizunak

Eginkizunen kidetasuna dela eta, honako hauen parekagarri diren jarduera guztiak barne hartzen dira lanbide-talde honetan:

- Merkataritza-gutunak idaztea, jasotako eskaintzen arabera prezioak kalkulatzeko, eskabi-deak jaso eta izapidetzea eta erantzunak proposatzea.
- Kontabilitateko agirietan oinarrituta, kontuen zati bat ezartzea.
- Laborategia analizatzeko eta zehazteko zereginak, beste norbaiten gidaritzapean; beti ez da beharrezkoa arauak eta espezifikazioak adieraztea, baina beharrezko elementuak prestatu behar dira, laginak atera eta ziurtagiriak eta analisisien buletinak prestatu.
- Proiektu soilak marrazteko zereginak, planoak egitea (osokoak eta xehetasunak) jasotako informaziotik abiatuta, behar diren haztamuak eginez eta, aldi berean, eskatutako soluzioak emanez.
- Proiektu osatuen I + G eginkizunak, jarraibideen arabera.
- Tailerreko, laborategiko edo bulegoko lanak gainbegiratzeko zereginak, maila bat gorago dagoen agintariarengandik jasotako arau orokorren arabera.
- Hornigaien erosketak kudeatzea.
- Materialak jaso, sailkatu, biltegiatu eta igortzen duen behargin multzo baten buruan zuzeneko agintea erabiltzea, materialen kontrola eramanek eta makina-ibilgailuen erabilera kontrolatuz.
- Askotariko piezak, makinak, materialak eta ordezeko piezak ikuskatzea, erabaki-gaitasun handiz, haiei dagozkien planoak, tolerantziak, osaerak, itxura, arauak eta erabilera aintzat hartuta.

## 5. Lanbide-taldea

### Irizpide orokorrak

Enpresa-eskemaren barruan, kualifikazio handiagoko agintari edo langileen mende egiten diren zereginak gauzatzen dituzte; oro har ikuskaritza-maila handia izaten da, baina langileek zenbait ezaguera dituzte lanbideari buruz, eta moldaketa-aldi ertain bat igarotzen dute.

### Prestakuntza

Erdi-mailako prestakuntza-zikloaren baliokidea den titulua, edo aitortutako jakintza balio-kideak, eta/edo lanpostu horren gaineko prestakuntza, edo lanbidea gauzatzean eskuratutako jakintzak.

Erreferentzia moduan, honako kategoria hauek sartzen dira barnean:

#### a) Enplegatuenak:

- 2. mailako administraria.

#### b) Teknikariak:

- 2. mailako hotz-teknikaria.
- 2. eta 3. mailako delineatzaileak.
- 2. eta 3. mailako teknikariak.

#### c) Beharginak:

Talde-arduraduna.

- 1. eta 2. mailako ofizialak.

### Eginkizunak

Adibideak: analogia erabilia, honako hauekin parekatzeko modukoak diren jarduera guztiak sartzen dira lanbide-talde honetan:

- Aplikazio informatikoak erabiltzea eskatzen duten administrazio-zereginak.
- Soldata-kalkuluekin, kostuen balorazioekin, kobrantza- eta ordainketa-funtzioekin eta antzeko zeregin oinarritzeko, goragoko agintari baten mende eta haren aginduak zuzenean betez egiten direnak.
- Produktuaren eraldaketa sortzen duten prozesuak kontrolatzeko eta arautzeko zereginak.
- Ekoiztako produktuaren autokontrola behar duten makina konbentzionaletan eragiketarako prestatzeko beharrezko zeregin konplexu samarrak.
- Nolabaiteko ekimen-maila eskatzen duten artxiboko, erregistroko, kalkuluko eta fakturazioko zereginak edo antzeko beste batzuk.
- Eskabideak bideratzea, merkantziak berraztertzea eta banatzea; eta liburuetan edo mekanikoki erregistratzea, eguneko mugimenduak eramateko.
- Mekanografia zereginak, lanaren aurkezpen egokiarekin, ortografia zuzenez eta behar bezainbateko abiaduraz eginak, jarraibide zehatzeko formatuaren arabera korrespondentzia idaztea eska dezaketenak, testu-tratamenduko programak edo gisako sorta informatikoak erabiliz.
- Beste batzuek prestatu dituzten marrazketa, kalkatze edo litografiako zeregin bakunak; bai-eta kalkulu xumeak ere.
- Karga eta deskargako lanetan langile-talde baten aginte zuzena izatea.
- Kalitatea kontrolatzea, ikuskaritzak eta begiratzeko birsailkapenak eginez edo kasuan kasuko tresnak erabiliz, finkatutako arauetan oinarriturik produktua errefusatzeko erabakitze ahalmenarekin, eta ikuskaritzaren emaitzak parteetan edo txantiloietan jartzea.
- Prozesuei buruzko datuak hartzea: temperaturak, hezetasunak, zikloen iraupena, lehengaien ehunekoak eta akatsak. Datu guztiak beren kodeen arabera jasotzea parteetan edo txantiloian.
- Datuen bilketak, laburpenak, estatistikak, koadroak eta segimenduak egitea, beste batzuek arau, gehienetan, zehatzen arabera eta zuzenean hartu eta ematen dituzten datuak erabiliz.

### 6. Lanbide-taldea

#### Irizpide orokorrak

Mendekotasun-maila handiz gauzatzen diren zereginak, modu argian ezarriak eta jarraibide zehatzekin. Ezer baino gehiago ahalegin fisikoa eska dezakete, eta prestakuntza gutxi edo oso oinarritzeko ezaguerak behar dituzte, nahiz eta, batzuetan, egokitzapen-epe labur bat behar dezaketen.

#### Prestakuntza

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren edo eskola-ziurtagiriaren pareko prestakuntza, bai eta lanbidea betetzean lortutako ezagutzak ere.

Erreferentzia moduan, honako kategoria hauek sartzen dira barnean:

#### a) Enpleguak:

- Administrari laguntzaileak.
- Telefonistak.

#### b) Beharginak:

- Espezialistak.
- 3. mailako ofizialak.
- Biltegizainak.

- Peoiak.

## Eginkizunak

Adibideak: analogia erabilia, honako hauekin parekatzeko modukoak diren jarduera guztiak sartzen dira lanbide-talde honetan:

- Laborategiko oinarrizko lanak.
- Kualifikazio berezirik edo hizkuntza ezagutzarik eskatzen ez duten harrerako eginkizunak. Telefonista eta/edo harreragilea.
- Planoak erreproduzitu eta kalkatzea.
- Mekanografia, artxibo, kalkulu, fakturazio edo administrazioaren arloko edo antzekoetako zeregin xume eta ohikoak.
- Egiatzatze-lanak, produktuen kalitatea egiaztatzeak.
- Garraiatzeko eta palet-etan jartzeko lanak, elementu mekanikoen bidez eginak.
- Informazioa transmititzeko ekipoak, faxak eta halakoak erabiltzea.
- Sistema informatikoetan datuak grabatzea eta datuok inprimatu edota irakurtzea.
- Karga eta deskarga lanak, eskuz edo elementu mekaniko soilen bidez.
- Hutsean esekitako edo autopropultsatutako makina astunak gidatzea, direla pisua igotzekoak, kargatzekoak, arrastatzekoak eta abar (lokomotoreak, traktoreak, palak, bultzagailuak, zubi-garabiak, portiko-garabiak eta abar).
- Makina arruntak erabiltzeko prestaketa-lanak, eta erremintak aldatzea eta ondo doitu eta edukitzea.
- Lehengai landuak edo erdi-landuak baliatu eta ateratzeko lanak, eskuekin egitekoak.
- Salgaiak eta generoak hartu, antolatu, banatu eta igortzeko lanak.

Lanbide-taldeen baliokidetzak adierazteko taulak eransten dira, eta, talde horietan, soldata-mailak zehazteko lanpostu-kategoriak zehazten dira.

	LANGILEA	ENPLEGATUAK	TEKNIKARIAK
1. mailako lanbide taldea		Arlo eta zerbitzuetako zuzendariak Goi-mailako unibertsitate-gradua eta masterra Lizentziadunak	Goi-mailako unibertsitate-gradua eta ingeniartzako edo arkitekturako masterra Ingeniariak (lizentziadunak) Arkitektoak (lizentziadunak)
2. mailako lanbide taldea		Sarrerako goi-mailako tituludunak Goi-mailako unibertsitate-gradua eta sarrerako masterra Goi-mailako unibertsitate-graduak unibertsitateko diplomatuak	Arkitekto teknikoak (perituak) Ingeniari teknikoak (perituak) Ingeniartzako edo arkitekturako goi-mailako unibertsitate-graduak
3. mailako lanbide taldea		Administraria	Delineatzailea Hotz-teknikaria Teknikaria
4. mailako lanbide taldea	Taldeko koordinatzailea	1. mailako administraria	1. mailako delineatzailea 1. mailako hotz-teknikaria 1. mailako teknikaria
5. mailako lanbide taldea	Taldeko arduraduna 1. mailako ofiziala 2. mailako ofiziala	2. mailako administraria	2. mailako delineatzailea 3. mailako delineatzailea 2. mailako hotz-teknikaria 2. mailako teknikaria 3. mailako teknikaria
6. mailako lanbide taldea	Espezialista 3. mailako ofiziala Peoia Biltegizaina	Administrari-laguntzailea	

• **Kategoriak**

Soldataren ondorenetarako, lanpostuen kategoria hauek ezartzen dira:

Hotz-teknikaria:

1. mailako hotz-teknikaria
2. mailako hotz-teknikaria:

Teknikaria

1. mailako teknikaria
2. mailako teknikaria
3. mailako teknikaria

Delineatzailea

1. mailako delineatzailea
2. mailako delineatzailea
3. mailako delineatzailea

Administraria

1. mailako administraria
2. mailako administraria

Administrari-laguntzailea

Talde-koordinatzailea

1. mailako ofiziala
2. mailako ofiziala
3. mailako ofiziala

Espezialista

Peoia

Talde-arduraduna

Bilteginzaina

Kontratazioak egitean, gutxieneko kategoria hauek adosten dira lanpostuko:

- Talde / arloko koordinatzaile-lanpostua: 2. mailako ofiziala gutxienez.
- Bulegoko lanpostua: administrari-laguntzailea gutxienez.
- Bilteginzainaren lanpostua: bilteginzaina.

Hitzarmenak arautzen dituen gutxieneko horietan sartzen direnean langileak, irizpide hauek baliatuko dira langileen igoerak erabakitzeko:

- Peoitik espezialistara: igoera 6 hileko esperientzia pilotzean kategoría horretako lanpostuetan.
- Espezialistatik 3. mailako ofizialera: igoera 2 urteko esperientzia pilotzean kategoría horretako lanpostuetan. Horrenbestez, Saunier Duval Clima enpresak prestatu eta kualifikatutako behargina 3. mailako ofiziala izango da.
- Administrari-laguntzaitetik 2. mailako administrarira: igoera 2 urte eta erdira, Saunier Duval Clima enpresak ulertzen du bulegoko langileak prestakuntza eta kualifikazioa dutela, eta 2. mailako administrarien kategoría aitortzen die.
- 3. mailako teknikitik/ofizialek 2. mailako teknikarira/ofizialera bi urte egin ondoren.
- 3. mailako ofiziala / 2. mailako administraria / 2. mailako delineaizailea / 2. mailako teknikaria / 2. mailako hotz-teknikaria izatetik 2. mailako ofiziala / 1. mailako administraria / 1. mailako delineaizailea / 1. mailako ofiziala / 1. mailako hotz-teknikaria izatera, bi urtetara.
- 2. mailako ofiziala / 1. mailako administraria / 1. mailako delineaizailea / 1. mailako teknikaria / 1. mailako hotz-teknikaria izatetik ofiziala / administraria / delineaizailea / teknikaria eta hotz-teknikaria izatera, bi urtetara.
- 1. mailako ofiziala izatetik talde-arduraduna izatera igarotzeko, enpresak askatasunez erabakiko du nor sustatuko duen. Balorazio handiena jasotzen duen izangaia ez baldin badu enpresak eskatzen dituen gutxieneko baldintzak betetzen, kanpo-kontratazio bidez beteko da lanpostu hori.

Lanpostu horiek bete eta aurreko paragrafoan adierazi diren sustapenak egiteko, ezinbestekoa izango da zehapen edo diziplinako espediente larririk ez eduki izana azken 3 urteetan.

## VI. kapitulua. Prestakuntza

### 26. artikulua. Ikastaroak

Enpresak berariazko izaera duen ikastaroren batera (izaera teknikoa dutenak edo lanarekin zerikusia dutenak) joatea eskatzen baldin badie langileei, enpresak osorik ordainduko ditu ikastaro horiek eta haien iraupen-denbora lan-denbora izango da, ondoren gutzietarako.

